


a



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2022KO ABUZTUAREN 29AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2022ko abuztuaren 29an arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia, Xabier Azpiroz Latasa alkate ordearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia, M^a Mar Ansorena eta Ricardo Arangoa.

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai, Julen Beunza, Esther Lacasta.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Uztailaren 28ko ohiko batzarreko akta emailaz helarazitako aho batez onartzen dute bildutakoek aurreko batzarreko akta.

2.- Alkate ebazpenak

Alkateak orain arte onartutako mozioen laburpena irakurtzen du:

2022/56 alkate ebazpena onartuz, obra baimena ematea: Joaquina Echeguia Lasarteri

Berueteko 12. Poligonoko 23. Lursailean dagoen etxebizitzan ate bat ireki eta arrapala desmontagarria jartzeko.

- 2022/57 alkate ebazpena obra baimena emanaz Udabe Beramendiko kontzejuari

Udabeko 1. Poligonoko 23. Lursailean biltegiaren teilatua eraberritzeko, obraren aurrekontua 10.880,10 eurokoa da.

-2022/58 alkate ebazpena onartuz Marta Landeira Santosek aurkeztutako aitorten ardurtsua Aizarotzko 10. Poligonoko 87. Lursailean dagoen etxebizitzaren garajeko sarbideko fatxada konpontzeko, harrizko zolakoa eta terrazako zeramika aldatzeko.

- 2022/59 alkate ebazpena onartuz Aizarotzko Olaondo 3 Bizilagunen Elkartoak aurkeztutako aitorten ardurtsua Aizarotzko Olaondo 3 kalean dagoen erakinean dauden 20 tximietan tximinien hegala impermeabilizatzeko eta junturak zigilatuzeko.

-2022/60 alkate ebazpena onartuz Inicativas Innovadoras empresaren aurrekontua 3.575 eurokoa BEZ kanpo, eta onartzea ere txosten hori egiteko aurkeztutako egutegi proposamena.

-2022/61 alkate ebazpena ez onartuz Arraratsko 14. Poligonoko 360. Lursailean irekiera baimenik gabe landaetxe iharduera egitearen kontra hasitako txosten zigortzailearen inguruan jabeak aurkeztutako alegazio txostena.

- 2022/62 alkate ebazpena, Ane Sirera Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Taldeko gizarte-langileak egindako eskaera onartuz eta baimena ematea, Apeztegiherria eraikineko bigarren solairuan dagoen udal-aretoa uztailearen 12an 17:30etik 18:30era saio bat egiteko erabiltzeko..

- 2022/63 alkate ebazpena onartzea Aintzane Andueza Zabalok egindako eskaera eta hortaz onartu 2009/11 Foru Dekretuaren 14 eta 15. Artikuluek arautzen dutenaren arabera abuztuaren 22 eta 23a soldatik gabeko egunak izatea.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte irakurritako alkate ebazpenak.

3.- Eskualdeko aktibazio planaren onespina...

Eskualdeko aktibazio plana Cedernak egin ahal izateko, laguntzak eskatzeko eta beste, eskualdea osatzen duten honako udalek (Larraungo udala, Beteluko udala, Lekunberriko udala, Basaburuako udala ,Imotzko udala, Atetzko udala Aranoko udala, Goizuetako udala, Aresoko udala, Leitzako udala , Araitzko udala) onartu behar dute eskuduntza eta izendapena egitea Cedernaren alde.

Erakunde hauek aktibazio planaren Talde Eragilea osatzen dute eta aldian-aldian biltzen dira plana garatu baliozkotzeko.

Basaburuako Udalak ziurtatzen du Talde Eragilearen bileretan, berau osatzen duten kide guztiek planaren sustatzaile eta dinamizatzaile izendatu dutela Cederna Garalur.

Basaburuako Udalak, eskualdeko aktibazio planak prestatzeko diru-laguntzen deialdiaren berri izanda, egiaztatzen du plana prestatzeko prozesuan gobernantza landuko dela eta Mendialdea Aktibazio Planaren Ordezkaritza__Organoa eratuko dela dagozkion estatutuekin azaroaren 30 baino lehen.

Hau guztia kontutan hartuta Basaburuko Udaleko batzarrak aho batez onartzen du Eskualdeko aktibazio planaren sustatzaile eta dinamizatzaile izendatu dutela Cederna Garalur eta parte hartuko duela planaren prestaketa prozesuan.

4.- Mozioak.

Ez daude.

Gai ordenetik kanpo, ogasun batzordean aztertu ondoren 2022ko aurrekontuari hasierako onespina emateko gaia sartzea proposatzen du alkate ordeak eta bildutakoek aho batez onartzen dute.

2022ko aurrekontua. Hasierako onespina.

Alkate ordeak aipatu bezala ogasun batzordean aztertu da aurrekontua, inbertsio bezala industria guneko urbanizazioaren 1 fasearen gastua sartu da eta eskolako isolamenduarena. Biak laguntzarekin egingo diren obrak izango dira eta hortaz sarrera bezala ere laguntzaren partidak sartu dira.

Aurrekontu xehetua aztertzen dute bildutakoek eta 1990/6 Foru Legearen 271. Artikulua jarraituz, hasierako onespenerako erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da 15 eguneko epean interesdunek alegazioak jarri ahal ditzaten, ondoren behin betiko onespina eman ahalko zaio.

Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute 2022ko aurrekontuaren hasierako onespina.

5- Batzordeen informazioa.

Kontzejuen Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Irailaren 21erako deituko da kontzejuen bilera, Nafar Gobernuak onartu duen laguntza adinduek gimnasia egiteko elementuak jartzearen inguruan hitz egiteko.

6- Informazio orokorra

- 60 urtetik gorako yoga programarako 346 euroko laguntza onartu dutela jakinarazten du Kultura eta Kirol Departamentuak.

7. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:00 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.